Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3193

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 10ekoa, Unibasqeko zuzendariarena. Honen bitartez, lan-kontratu iraunkorra duten EHUko irakasleen (Irakasle Oso, Irakasle Agregatu, Irakasle Lankide finko eta Ikertzaile finkoak) ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaeren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etetea adosten da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen (AJAPEL) azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5.c) artikuluak xedatutakoaren arabera eta deialdiak ezartzen duenaren arabera eskaeren ebaluazioa ebazteko guztiz beharrezkoa da CNEAIk Unibasqera nahitaezko txostenak bidaltzea (2010eko azaroaren 30eko EHAA, 230. zenbakia; 2011ko urtarrilaren 18ko EHAAk aldatuta, 11. zenbakia).

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lan-kontratu iraunkorra duten EHUko irakasleen (Irakasle Oso, Irakasle Agregatu, Irakasle Lankide finko eta Ikertzaile finkoak) ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaeren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etetea CNEAIk nahitaezko txostenak bidali arte. Behin txostenak jasota, deialdian aurreikusitako 6 hilabeteko epeari berrekingo zaio (ekainaren 30ean bukatzen zena). Beraz, Unibasqek ebazpen hau EHAAn argitaratzen denetik 2011ko ekainaren 30era arte geldituko liratekeen egunak izango ditu eskatzaileei ebaluazioen emaitzak jakinarazteko.

Bigarrena.– Interesdunei Ebazpen hori jakinaraztea, horren berri izan dezaten, AJAPELeko 58. eta 59. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 10a.

Unibasqeko zuzendaria,
MIKEL URQUIJO GOITIA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3193

RESOLUCIÓN de 10 de junio de 2011, del Director de Unibasq, por la que se acuerda suspender el plazo para dictar y notificar la resolución de las solicitudes para la evaluación de la actividad investigadora del profesorado con contrato laboral permanente en la UPV/EHU (Profesorado Pleno, Profesorado Agregado, Profesorado Colaborador permanente e Investigadores permanentes).

En virtud de lo dispuesto por el artículo 42.5.c) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en la medida en que para la resolución de la evaluación de las solicitudes es necesario que la CNEAI entregue a Unibasq los informes preceptivos tal y como establece la convocatoria (BOPV n.º 230, de 30 de noviembre de 2010, modificado por BOPV n.º 11, de 18 de enero de 2011).

RESUELVO:

Primero.– Suspender el plazo para dictar y notificar las resoluciones para la evaluación de la actividad investigadora del profesorado con contrato laboral permanente en la UPV/EHU (Profesorado Pleno, Profesorado Agregado, Profesorado Colaborador permanente e Investigadores permanentes), hasta que recaigan los informes pertinentes por parte de la CNEAI. Una vez recepcionados se reanudará el plazo de seis meses previsto en la convocatoria, que finalizaba el 30 de junio; por tanto, Unibasq dispondrá de los días que resten desde la publicación en el BOPV de la presente Resolución hasta el 30 de junio de 2011 para notificar a los solicitantes el resultado de las evaluaciones.

Segundo.– Notificar la presente Resolución a los interesados, a efectos de que tengan conocimiento de la misma, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 58 y 59 LRJPAC.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de junio de 2011.

El Director de Unibasq,
MIKEL URQUIJO GOITIA.